

Geure Hezkuntza Sistemari diru gehiago segregazioari

Hezkuntza Sailburuak ekainaren 28an EAEko ikastetxe segregatuei (sexuaren arabera ikasleak sailkatzen dituzten ikastetxeei) diru-laguntzak ematen jarraituko dutela aitortu zuen legebiltzarreko hezkuntza batzordean, *gurasoen eskubidea bermatze aldera, ikastetxe horiek araudia betetzen omen dute eta*. Adierazpen hauekin Cristina Uriartek berak hartutako erabaki baten berri eman du, ez ezinbestez betebeharreko neurri batena. Hala da, 2010ean STEE-EILASEk auzi-eskea aurkeztu zuen diru-laguntza horien kontra, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, 2012ko urrian, sindikatua gai horretan demanda aurkezteko ez dela nor erabaki zuen. Jarraitzen dugu pentsatzen ikastetxe horiei dirua ematearen babes juridikoa zalantzazkoa dela, baina dirurik ez emateari buruz ez dago zalantzarik: 2012an Espainiako Auzitegi Gorenak 6 epai atera ditu Andaluziako Juntak hartu zuen aukera hori bermatzeko.

Aski frogatuta dago ikasleak sailkatzeak, (dela sexuaren arabera, dela emaitza akademikoen arabera), ezberdintasunak areagotzen dituela; balizko diferentziak azpimarratzen ditu eta ikasleak ezberdinak direlako ustea barreiatzen du. Bitxia bada ere, Sailburuak astebete aurretik esanda zuen hezkidetzaren lantzeko plana abian jarriko dutela.

Bitxia diogu jakina baita gazteekin eta umeekin aritzean koherentziaren arazoa berehala sortzen dela: tabakoa erretzea txarra dela esatea zigarroa eskutan izanda, edo semaforoak berdez gurutzatu behar direla adieraztea ondoan oinezko andana gorritz pasatzen ari diren bitartean alferrikakoak izaten dira. Era berean zaila iruditzen zaigu mutil bati jakinaraztea pertsona guztiak parekoak garela baldin eta ikastetxean ikusten dituen emakume bakarrak garbitzaileak badira, edo mutilak ikaskide eta gizonak irakasle ez dituzten nesken estereotipoak gainditzen laguntzea.

Gauza bera esan daiteke lehen haurtzaroari buruz: *Haurreskolak* 0-2 urte arteko umeen eskola publikoak dira, baina kuotak ordaindu behar direnez (160-208 euro hilero eguneko ordu kopuruaren arabera, jantokia aparte) matrikula-beherakada nabaria gauzatzen ari da krisia aurrera joan ahala, hots, plaza hutsik izanda ere, hainbat ume etxean geratuko dira, etxe barruan ama eta beste emakumeak arduratuko direlarik haietaz. Urte batzuk barru, agian, ume horiek emakumeek eta gizonen eskubide berberak ditugula entzungo dute, edo emakume edo gizon izateak ezin duela muga izan norbere proiektuak garatzeko... baina esperientziak esango die haur txikiak artatzea (eta, orokorrean, dependentzia dutenei laguntza ematea) emakumeen kontua soilik dela, gizonen etxetik kanpo soilik lan (edo) egiten dutela... Zeri egingo diote kasu?

Hezkuntza sistemak ezin ditu gizartearen arazo guztiak konpondu, baina hainbat arrazoi aurrean egoera hobetzearen alde edo kontra jo dezake; hona hemen proposamen batzuk umeak eta gazteak sexuen arteko berdintasunean hezten laguntzeko: sexuaren arabera ikasleak sailkatzen

dituzten ikastetxeetan (4 ikastetxe EAEn, Opus Deiri lotuta) ez inbertitu diru publikoa (6.000.000 € ikasturteko); eman diru hori, eta behar beste, 0 urtetik eskolaratzeko eskubidea unibertsala izan dadin, eta ez, orain bezala, errekurtsio ekonomiko nahikoak dutenena soilik, (gainera, familiaren barruan lanak era orekatuagoan banatzeko aukera emango diegu, haurrei eredu egokiagoak eskaintzeko); eta bultzatu eta indartu hezkidetzaren planak, ikastetxei errekurtsioak emanez, (datorren ikasturtean 860 ikasle gehiago eta 18 irakasle gutxiago izango ditugu EAeko haur eta lehen hezkuntza publikoan) ideia berriak zabalduz, eta orain arte arlo horretan lan egin dutenekin, (STEE-EILASekin ere) kontaktuz.

LOMCEren aurka agertu gara hezkuntzako eragile guztiak, Hezkuntza Saila barne, baina lege horrek ezarriko dituen neurri batzuk, ikastetxe pribatu guztiei itunak erraztea, adibidez, hemen aplikatzen ari zaizkigu aspalditik; hortik agian datorkigu lege berriaren adostasun zabala: batzuk neurri segregatzaileen aurka gaude, beste batzuk, alde egonda ere, ez dute gehiagorik behar.

2013-07-01

STEE-EILAS